

## Ikasleen irteera profila

***Ibarrako Uzturpe ikastolan, hezkuntza ibilbidea bukatzean ikasleek ondorengo ezaugarriak eskura ditzaten lan egiten dugu.***

<b>EUSKALDUN ETA ELEANITZA</b>	Euskaldun eleanitza izatea, euskararen eta euskal kulturaren ezagutza oinarritzat hartuz eta beste hizkuntzen ulermena eta adierazmena bermatuz, ahoz zein idatziz, euskaldun aktibo izateko eta hizkuntza egoera ezberdinetara egokitu ahal izateko.
<b>ZORIONTSUA</b>	Norbere barnean poz, alaitasun, gozamen, lasaitasun eta maitasun-egoeran sentitzea, bizitzari modu baikorrean aurre eginez , bakoitza den bezala onartuz, maitatuz eta garatzeko aukera balioetsiz, oreka emozionala bermatzeko.
<b>ANIZTASUNA ERRESPETATZEN DUENA</b>	Elkarrekin errespetuz bizitzen ikastea, helburu komuneke eginkizunetan lankidetzan arituz, pertsonen eta iritzien aniztasunak dakarren aberastasuna aitortuz eta sortzen diren gatazkak elkarrizketa eta negoziazio bidez kudeatuz, guztion ongizatea bermatzeko.
<b>NORBERE BURUAREN JABE</b>	Emozio eta jarreraren kontrola izatea, emozioak identifikatuz eta egoki kudeatuz, ondorioz sor litezkeen erreakzioak erregulatuz eta egoera ezberdinetan jarrera egokia izanaz, norberaren eta taldearen ongizatea bilatzeko.
<b>AUTONOMOA</b>	Norbere indargunez eta ahulgunez kontzientea izanik bere buruarekin ziur sentitzea eta dituen gaitasunetan konfiantza izatea, erronka eta ardura berriei aurre eginez, maila pertsonal nahiz sozialean oreka eta bizitza kalitatea aurkitzeko.
<b>KRITIKOA</b>	Pertsona kritikoa izatea, informazio, pentsamendu eta sentimendu ororen aurrean iritzi propio arrazoitua adieraziz, ondorio arrazionalerara heltzeko eta gizarteko kide aktibo izateko.
<b>EKINTZAILEA: SORTZAILEA ETA ERALDATZAILEA</b>	Iniziatibaz eta iraunkortasunez bakarka nahiz taldean aritzea ideiak eta proiektuak planifikatuz, sortuz, prozedura zientifikoak erabiliz eta ebaluatuz, kalitatea, baliagarritasuna eta teknologia balioetsiz ingurune hurbilean nahiz gizartean eragile aktiboa eta konprometitua izateko.

<b>ENPATIKOA</b>	Besteen lekuan jartzeko gaitasuna izatea, gainontzekoen ikuspuntua eta haiengan errotutako sentimenduak ulertuz , eta norbere ekintzen ondorioez jabetuz, ingurukoekin harreman orekatu, eraikitzaile eta harmoniatsuak izateko.
<b>KOMUNIKATZAILEA</b>	Testuingurura egokitzuz informazioa, azalpenak eta bere sentimenduak modu asertiboan transmititzeko ahalmena izatea, ahoz, idatziz, gorputz adierazmenaz eta digitalki, adierazi nahi duena modu eraginkorrean besteengana iristeko.
<b>INGURUMENAREKIKO ARDURATSUA</b>	Ingurumenarekiko erantzukizuna eta errespetua izatea, iraunkorrek diren jarrera eta ekintzen onurak ezagutzuz, eta hauek aurrera eramateko ekimenak eta estrategiak bultzatuz, egungo eta etorkizuneko belaunaldien ongizatea bermatzeko.
<b>BIZI OHITURA OSASUNGARRIAK DITUENA</b>	Bizi ohiturek izan ditzaketen eraginak ezagutzea eta baloratzea, kirol edo jarduera fisikoa praktikatzuz, dieta orekatua eta higiene ohitura egokiak garatuz, kalitatezko bizimodu osasungarria izateko.
<b>ETORKIZUNEKO IKASKETETARA EGOKITZEN DAKIENA</b>	Etorkizuneko ikasketetara egokitu ahal izango den ikaslea izatea, ikasketa prozesuaren jabe izanaz, lan nahiz ikasketa ohitura egokiak barneratuz eta norberaren gaitasunen garapen gorena bultzatuz, etorkizuneko egoera berriei egokitu ahal izateko.